


JIPOIA



© Xabier Galarreta

Mahai azpian erdi ezkutaturik zegoen erlojuko orratz beltz eta luzeetan geldi geratutako denborak alegoria patetiko baten bandera inarrosi behar zuela zirudienean, kanpoko norbaitek oihu egin eta sudur-luzea nor izan zitekeen igarri baino lehenago polizia-talde bat sartu zen etxe barruan eurenekin halako *hurrican* basati bat ekarriz: hitzak hegan atera ziren –ordu batzuk lehenago pattarraren eta aurrez eginiko jaki merkeen artean katigaturik geratutako hitz laxo eta potoloetan flotaka ziharduten mezu, hots, irain eta solas motelak euren denborazko tuneletik atereaz eta bidenabar ankerkeria nabarmenez suntsituz.

Protagonistak hantxe iraun zuen, begiak zabal-zabal, Kuaternariotik dinosauro-talde basati bat logelan sartu izan balitzaio bezala, izaturik, eszenari so, ezer ulertu ezinik, pentsatuz agian lotan jarraitzen zuela eta amesgaizto baten barruan agian –AGIAN!– egongo zela eta berehala iratzargailuaren uluak handik aterako zuela.

Baina ez.

Den-dena zen bene-benetakoa. Esaldi baten pisuzko imintzioa ahoskatzen hasi orduko, gainera etorri zitzaizkion polizia erraldoi haien eskuetatik jasaten hasi zen sekulako jipoia zela-eta, erromatarren garaiko zirku bateko gizagaixoak, lehoietara jaurtia izanda, zer sentitzen zuen ulertzeko astia izan zuen, konortea galdu nahi izan

bazuen ere ez baitzuen lortu loaren erresumara berriro itzultzea, eta hori bazitekeen horrela izatea poliziek ematen zizkieten kolpe guztiek helburu zituztelako haren gorputzaren alderdi guztiak, buruari zegozkionak izan ezik.

Jipoia itzela zen, basatia zen, eta ez zirudien geratzeko asmoa zutenik. Ondo pasatzen ari ziren joka eta joka, joka eta joka. Une jakin batean, norbaitek musika jarri zuen, erritmo biziko melodia bat, orduan unetxo batez kolpeak gelditu egin ziren, baina soil-soilik lehen baino indar handiagoz berrekiteko euren jardunari, eta kolpe-zaparrada lehen baino indar handiagoz, lehen baino basatiago hasi zen berriz, alde bakarra zelarik oraingoan musikari jarraika kolpatzen zutela, nolabaiteko harmonia sortaraziz kolpe batzuen eta beste batzuen artean, orkestrako musikariekin gertatzen den bezala; areago, halako batean, agintea zeukala zirudien galoidun polizia batek orkestra-makil antzeko batekin hasi zen kolpekarien orkestra hura zuzentzen, elektrizitatez zamaturiko batuta hura noizean behinka erabiltzen zuelarik gizagaixoaren gorputz-atal guztiak oinazetu eta elektrizitatez mortifikatzeko.

Arrazoirik izan behar zuten horretarako! Baina zein, zein? –galde egiten zion bere buruari–. Ez zekien arrazoirik gabeko jipoia zela, alde z aurretik prestatua gizon haiek areago gogortzeko, maniobra gisa diseinatua alegia. Bera bulegari xumea baino ez zen, politikoki ezertan nahasten ez

diren horietakoa. Eta polizia haiek hainbeste ziren...! “Bat gutxiago” abesten zuten bera ikaragarriro jipoitzen jarraitzen zuten bitartean. Batek den-dena grabatzen zuen bideoz, geroago You-Tuben jartzeko. Marka guztiak hautsiko zituzten! Milioika ikusle izango ziren jipoi ikaragarriaren lekuko (horrelako gauzak bolboraren antzean barreiatzen baitira sarean zehar –edota telebista publikoan zehar, tele-zaborrerako lan egiten duten kazetari-legionarioen laguntza estimagaitzarekin–).

Bien bitartean, joka hemendik eta joka handik... harik eta kolpeen jomuga nabarmen aldatzen hasi zen arte. Jada ez baitzuten aski izaten gorputz osoa zigortzearekin, orain burura zuzentzen hasiak zituzten euren kolperik lazgarrienak: sudurrak nola apurtzen zitzaizkion sentitu zuen minaren mugaz harantzagotik, belarrietan jotako kolpe bakoitzak tinpanoak leherraraztean sortarazitako danba ikaragarri hark gorputzaren barneko zoko-moko guztiak korritu zizkion, eta handik aurrera buru-hezurrean hartutako kolpeek eragindako pitzaduretatik likidoak eta ore biskosoak nola eskapatzen zitzaizkion ohartzen hasi zen ikara irudikaezin eta etsitu baten erdian.

Halako batean, hasi bezala “jolasa” eten egin zen. Polizia haietako batek agindua emanda, denak hasi ziren atzeraka irteten gela mehar eta estu hartatikan –polizia haietako batek soka bat leihotik bota eta handik jaitsi zen rapel eginez–.

Beste batek ke-pote bat jaurti zuen; hirugarren batek plastikozko bala bat, juxtu ezkerreko begitik sartu zitzaiona; laugarren polizia batek bat-batean txakur batekin azaldu eta zenbakaitzak egin zitzaizkion 45 segundo luze eta hilgarriz txakurrari utzi zion harekin nahi zuen guztia egiten, haragipuska galantak horma, sabai eta zoruan zehar barreiatu arte; orduan, bosgarren polizia batek beste ke-pote bat bota zuen, eta seigarren batek suzko bengala bat, tripan sartuta geratu zitzaiona. Eta azkenik, agintari-itxura zeukanak makila elektrikoa sartu zion ipurditik, martxan jarri eta ziztu bizian eta atletikoki alde egin zuen, ordurako bera baino ez zelarik geratzen ehorzketa-moduko gelaxka infernuzko hartan.

Filmatzaileak kamara itzali zuen. Eta karrerila hartuta, harengana joan eta sekulako ostikoa eman zion ahoan, bete-bete harrapatu zizkion hortz guztiak errotik erauzi eta eztarrian behera batzuk joan zitzaizkiolarik, itolarri izugarria eragin ziona. Eta hasi zen hiltzen, oso-oso azkar (azkenean!, pentsatu zuen).

Bizkor-bizkor ari zen azken hatsa ematen. Isiltasuna erabatekoa zen. Saiatu zen une batez zerbait ulertzen. Baina ezer ez. Horren arrazoa. Ezer ez. Maniobrak izango ziren. Batzuetan, horrelako maniobrak egiten zituztela entzuna baitzuen. Tokatzen zitzaionari tokatzen zitzaiola. Berdin zion. Amaitzera zihoan. Ahal bezala, iratzargailuari begirada bat bota zion. Geldi zegoen,

edo behintzat, geldi zegoela ematen zuen. Orduan, iratzargailua joka hasi zen. Uluka. “Goizeko zortziak dituk. Jaiki ohetik, alferrontzi hori” esango balio bezala.

Orduan, hil egin zen.

Orduan, esnatu egin zen.

(edo alderantziz, auskalo...)